
3 GIPIIZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - FISKALITATEA ETA FINANTZAK

Ekainaren 27ko 583/2006 Foru Agindua, apustu bidez jokuen gaineko zergaren aitorpena eta sarreren 048 zerga ereduak onartzen duena.

GIPIIZKOAKO FORU ALDUNDIA

FISKALITATERAKO ETA FINANTZETARAKO DEPARTAMENTUA

Ekainaren 27ko 583/2006 FORU AGINDUA, apustu bidezko Jokoaren gaineko Zerga aitortu eta ordaintzeko 048 inprimaki ereduak onartzen duena.

Otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duenak, Euskal Autonomia Erkidegoan baimendu behar diren joko jarduerak zergapetzen ditu Gipuzkoan gauzatzekoak direnean.

Foru arau horrek 3. artikuluan xedatzen duenez, besteak beste, apustuak egiteko gauzaten diren joko jarduerak baimendu, antolatu edo egiteak eratzten du Jokoaren gaineko Zergaren zerga-gaia; 5. artikuluan jasotzen duenez, bestalde, bidezko baimen administratiboa jaso duten pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak dira zerga horren subjektu pasiboak.

Gauzak horrela, otsailaren 1eko 1/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duenak, 16. artikuluan ematen didan ahalmenaz baliatuz, honako hau

XEDATU DUT

1. artikulua. Apustu bidezko Jokoaren gaineko Zergaren 048 ereduak onartzea.

Onarturik geratzen da apustu bidezko Jokoaren gaineko Zerga aitortu eta ordaintzeko erabiliko den 048 ereduak, foru agindu honetan eranskin gisa ageri dena. Ereduak bi ale ditu:

—Administrazioaren alea.

—Interesatuaren alea.

2. artikulua. 048 ereduak aurkeztera behartuak.

048 ereduak aurkeztera behartuta daude apustu bidezko jokoan aritzeko baimen administratiboen titular diren pertsona fisiko edo juridikoak nahiz entitateak. Baimen administratiborik ez badago, besteak beste jokoetan parte hartu edo horiek antolatzen dituzten pertsona fisikoak, juridikoak edo entitateak behartuta egongo dira 048 ereduak aurkeztera.

3. artikulua. Aurkezteko epea.

048 ereduaren aurkezpena eta ordainketa hiru hilabetean behin egingo da ondorengo urteko apiril, uztail, urri eta urtarrilaren lehen hogeita bost egunen barruan.

4. artikulua. Aitortzeko oinarri ezargarria.

Bat. Oinarri ezargarria izango da apustuan jarritako kopuruen batura osoaren eta jokoan parte hartzen dutenek lortutako sarien zenbatekoaren arteko diferentzia.

Bi. Dena den, pilota jardunaldiak, traineruen estropadak edo bestelako herri kirol edo lehiaketako jarduerak antolatzean egiten diren apustueta, oinarri ezargarria urtearen barruan antolatutako jardunaldien kopurua izango da, baldin eta apustuak gauzatzen badira bakar-bakarrik jarduera horiek egiten diren lekuan eta kanpoko apustuen bidez osatzen ez badira.

5. artikulua. Ordaintzeko kuotaren kalkulua.

Bat. Apustu jokoaren zerga tasa %10ekoa izango da, ondorengo apartatuan jasotakoa eragotzi gabe.

Aipatu zerga tasa hiru hilabeteen behin aplikatuko da apustuan jarritako kopuruen hiruhileko baturaren eta jokoan parte hartzen dutenek lortutako sarien zenbatekoaren artean egindako diferentziaren gainean.

Bi. Apartatu honetan zerrendatutako kirol edo lehiaketako jardueretan oinarritutako barne apustueta, berariazko kuota hauek aplikatuko dira:

a) Pilota jardunaldiak eta traineruen estropadak antolatzean egindako apustueta: 100 euroko kuota finkoa ordainduko dute, antolatutako jardunaldi bakoitzeko, urtean 50 jardunaldi baino gutxiago antolatzen direnean edo, bestela, 150 euroko kuota urtean 50 jardunaldi edo gehiago antolatzen direnean.

Kuota horiek urtearen hasieratik hiruhilekoaren azken egunera bitartean jarduera bakoitzean antolatutako jardunaldien kopuru osoaren arabera aplikatuko dira. Halako moduz non, jardunaldi kopurua 50etik beherakoa bada 100 €-ko kuota finkoa aplikatuko baita eta, kopuru hori 50ekoa edo handiagoa bada, aldiz, 150 €-koa. Urtean metatutako kuota osoa behin lortuta, kuota horri urte bereko aurreko hiru hilabeteetan ordaindutako zenbatekoa kenduko zaio hiruhileko bakoitzagatik zenbat ordaindu behar den kalkulatzeko.

b) Herri kirol edo lehiaketako beste jarduera batzuk (hala nola, idi demak, aizkolariak, segalariak edo harri-jasotzaileak) antolatzean egiten diren apustueta: 20 euroko kuota finkoa ordainduko dute, antolatutako jardunaldi bakoitzeko, urtean 50 jardunaldi baino gutxiago antolatzen direnean edo, bestela, 30 euroko kuota urtean 50 jardunaldi edo gehiago antolatzen direnean.

Kuota horiek urtearen hasieratik hiruhilekoaren azken egunera bitartean jarduera bakoitzean antolatutako jardunaldien kopuru osoaren arabera aplikatuko dira. Halako moduz non, jardunaldi kopurua 50etik beherakoa bada 20 €-ko kuota finkoa aplikatuko baita eta, kopuru hori 50ekoa edo handiagoa bada, aldiz, 30 €-koa. Urtean metatutako kuota osoa behin lortuta, kuota horri urte bereko aurreko hiru hilabeteetan ordaindutako zenbatekoa kenduko zaio hiruhileko bakoitzagatik zenbat ordaindu behar den kalkulatzeko.

6. artikulua. Aurkezteko eta ordaintzeko tokiak.

048 eredua Zergabilketa Erregelamenduak bilketan laguntzeko baimentzen dituen entitateetako batean aurkeztu eta ordainduko da (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan).

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratu da boleto bidezko Zorte, Apustu edo Zorizko Jokoen gaineko Zergaren aitortpen-likidaziorako 046 eredua, hain zuzen 2001eko abenduaren 21eko 1.330/2001 Foru Aginduak onartu zuena.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2006ko ekainaren 27a.—Juan Jose Mujika Aginagalde, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Departamentuko foru diputatua.

(5265) (7062)

